 <p><b>Alegiako</b> Udala</p> <p>Gipuzkoa</p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	<b>AKTA</b>
		DATA:	2025 - 10- 22
	IZENA: 20251022ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 11 - 26
		ORRIALDEA:	17 (e)tik 1

## UDAL BATZARRAREN OSOKO BILKURA

**EGUNA: 2025 - 10 - 22**

**ORDUA: 19:00**

**IZAERA: OHIKOA**

**LEHENDAKARIA:**


REGINA SORARRAIN LASA andrea.

**ZINEGOTZIAK:**

- **EDURNE ARRAYET GARMENDIA** andrea.
- **ASIER EZEIZA IRAZUSTABARRENA** jauna.
- **ANDREA LARRAÑAGA CEBALLOS** andrea.
- **MARIA JESUS GAZTAÑAGA OTERMIN** andrea.
- **MAIALEN LANDART HERRERO** andrea.
- **MARIA PILAR PALOMARES PEREZ** andrea.

**IDAZKARIA:**

- **JON ZALDUENDO TELLERIA** jauna.

 <p><b>Alegiako</b> Udala</p> <p><b>Gipuzkoa</b></p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	<b>AKTA</b>
		DATA:	2025 - 10- 22
	IZENA: 20251022ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 11 - 26
		ORRIALDEA:	17 (e)tik <b>2</b>

Alegian, udaletxeko bilera aretoan, aurrez egindako deira, bi mila eta hogeita bosteko urriaren hogeita bian, hemeretzi ordu direla, Udalaren Batzar Osoa biltzen da ohizko saioan, goian aipatzen diren zinegotziak partaide direla, Regina Sorarrain Lasa andrea alkatearen lehendakaritzapean.

Bertan aurkitzen da Jon Zalduendo Telleria, Udalaren Idazkaria, eta zinpean ekitaldiaren berri jasotzen du.

**Dokumentuan erabiltzen diren akronimoak:**  
EH BILDU: Euskal Herria Bildu Udal talde Politikoa.  
AA: Aurrera Alegia Udal Talde Politikoa.

## AZTERGAIK

### I.- UDAL JADUERAREN BERRI EMATEA.

I.- Alkatetzaren erabakien berri ematea.

### II.- ERABAKIAK

I.- Aurreko aktak onartzea:

- 2025/09/30koa.

II.- Ordenantza fiskalen eguneratzea. Erabaki proposamena.


III.- Taxi jardunbide bereziko zonaldea. 2026 ekitaldirako tarifak. Erabaki Proposamena.

IV.- Alegian euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduzko marko estrategikoa 2024-2034

### III.- MOZIO, ERREGU ETA GALDERAK.

Alegia, 2025ko urriaren 17a

Alkateak

 <p><b>Alegiako</b> Udala</p> <p><b>Gipuzkoa</b></p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	<b>AKTA</b>
		DATA:	2025 - 10- 22
	IZENA: 20251022ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 11 - 26
		ORRIALDEA:	17 (e)tik <b>3</b>

## I.- UDAL JARDUERAREN BERRI EMATEA

### I.I.- Alkatetzaren erabakien berri ematea.

Iraganeko 2025ko irailaren 30eko Osoko Bilkura geroztik, alkatetzak hartutako erabakien zerrenda igorri da deialdiarekin batera, eta honenbestez berri ematen zaio Batzarrari, indarrean dagoen azaroaren 28an onartutako 2568/1986 Errege Dekretuak arautzen dituen Toki Erakundeetarako Eraketa, Jarduera eta Legebideko Araudiaren 42.atalean adierazten den ondorioetarako.

Asier Ezeiza, EH Bilduko zinegotziak hurrengo esan zuen: *“Harritu diguna da Alkatetza dekretuen artean 318/2025 Alkatetza dekretua, kontratazio Txikia, Haurreskolako kanpoaldeko patioa estaltzea. Esleipenduna: CONSTRUCCIONES METALICAS LAUR SL. Ikustea, hau da , izan ere hurrengo asteko batzordean gai honi buruz hitz egin behar genuen, baina dagoeneko erabakia hartuta dago.”*

Alkateak hurrengo esan zuen: *“Bere garaian gai honi buruz hitz egin genuen, proiektua berraztertu egin da eta bideratu egin behar dugu urtea bukatu baino lehen aurreko urteko partida bat da eta, horregatik presa geneukan, hala ere batzordean hitz egingo dugu gaiaren inguruan.”*

## II.- ERABAKIAK

### II.I.- AURREKO AKTAK ONARTZEA.


#### 2025ko irailaren 30eko bilkurako akta.

Bilkurako deialdiarekin batean, aktaren zirriborroa igorri zaie Zinegotziei.

Alkate-Lehendakariak, aktaren edukiari buruz norbaitek oharrik egin nahi duen galdetzen du; onartzea proposatuz.

Ez da oharpen eta aldaketa zehatzik egiteko eskatu, edo proposamenik egiten.

Aldaketarik inork ez du eskatzen, eta ondorioz, indarrean dagoen azaroaren 28an onartutako 2568/1986 Errege Dekretuak arautzen dituen Toki Erakundeetako Eraketa, Jarduera eta Legebideko Araudiaren 91.atalean araututakoaren arabera, **ontzat hartua jotzen da.**

	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	<b>AKTA</b>
		DATA:	2025 - 10- 22
	IZENA: 20251022ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 11 - 26
		ORRIALDEA:	17 (e)tik <b>4</b>

## **II.II.- ORDENANTZA FISKALEN EGUNERATZEA. ERABAKI PROPOSAMENA.**

I.- Deialdiarekin batera, gaiari buruzko dokumentazio zabal eta ugaria igorri zaie aurretik Zinegotziei. Halaber, honela dion erabaki proposamena ere, igorria izan da:

### **ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA PROPOSAMENA 2026ko urtarrilaren 1etik**

#### **1.- Ondasun higieizinei buruzko zergaren kuotak finkatzeko funtsezko elementuak erregulatuko dituen ordenantza fiskala.**

TARIFAK (% 3,6ko igoera)

- 1) Hiri-lur Ondasun Higieizinen gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa: %0,266.
- 2) Zona Industrial edo tertziarioetan kokatuta dauden hiri ondasunentzako: %0,445.

#### **2.- Udalerriko jarduera ekonomikoen gaineko zergaren exakziorako zenbait ahalmen erregulatzen dituen ordenantza fiskala.**

TARIFA (% 3,6ko igoera)

- Finkatutako gutxieneko kuoten gehikuntzaren koefiziente bakarra: 2,036.

#### **3.- Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren kuotak finkatzeko elementuak erregulatzen dituen ordenantza fiskala**

VI. HOBARIAK

- 4.- Propultsioko motor hibridoa duten ibilgailuak %25eko hobaria izango dute zerga kuotan, lehenengo 5 urteetan matrikulazio datatik.

TARIFAK (%3,6ko igoera)


Abenduaren 27ko 4/1999 Foru Arauan xedatutakoa gutxieneko tarifei 2,4185 indizea aplikatuta.

##### a) Turismoak

1. 9 zaldi fiskaletik beherakoak	44,48
2. 9tik 11,99 zaldi fiskalera bitartekoak	88,95
3. 12tik 13,99 zaldi fiskalera bitartekoak	148,26
4. 14tik 15,99 zaldi fiskalera bitartekoak	207,56
5. 16tik 19,99 zaldi fiskalera bitartekoak	266,86
6. 20 zaldi fiskaletik gorakoak	326,16

##### b) Autobusak

10. 21 plaza baino gutxiagokoak	201,46
---------------------------------	--------

 <p><b>Alegiako Udala</b> Gipuzkoa</p>		DOKUMENTUA:	<b>AKTA</b>
	Lehendakariaren errubrika	DATA:	2025 - 10- 22
	IZENA: 20251022ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 11 - 26
		ORRIALDEA:	17 (e)tik <b>5</b>

11. 21etik 50 plazara bitartekoak	286,94
12. 50 plaza baino gehiagokoak	358,67

©) Kamioiak

20. 1000 kg-tik beherako karga erabilgarria	102,26
21. 1000tik 2999 kg bitarteko karga erabilgarria	201,46
22. 2999tik 9999 kg bitarteko karga erabilgarria	286,94
23. 9999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	358,67

d) Traktoreak

30. 16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	42,74
31. 16tik 25 zaldi fiskalera bitartekoak	67,16
32. 25 zaldi fiskal baino gehiagokoak	201,46

e) Trakzio mekanikozko ibilgailuek eramandako atoi eta erdi-atoiak

40. 1.000 kg. baino gutxiagoko eta 750 kg. baino gehiagoko karga erabilgarria dutenak	42,74
41. 1000kg.tik 2999kg. arteko karga erabil.	67,16
42. 2999 kg.-tik gorako karga erabilgarria	201,46


f) Bestelako ibilgailuak

50. Ziklomotoreak	10,91
51. 125 zk. bitarteko motozikletak	10,91
52. 125etik 250 zk. bitarteko motozikletak	18,67
53. 250etik 500 zk. bitarteko motozikletak	37,37
54. 500etik 1000 zk. Bitarteko motozikletak	74,73
55. 1000 zk.-tik goragoko motozikletak	149,44

#### **4.- Eraikuntza, instalazio eta obrei buruzko zergaren ordenantza fiskal arautzailea.**

TARIFAK (%3,6ko igoera)

I.- OROKORRA	%
• Merkataritza, lanbide eta industriazko lokaletako obrak.	5,00
• Etxebizitzak	5,00
• Baserriak, nekazal ustiapena.	2,19
• Etxebizitza sozialak eraikitzea, aldi baterako kalifikazioa egikeran indarrean dagoen modulu ponderatu ezargarria 1,1era arteko koefizientearekin, berau barne dela, biderkatzearen emaitza izanik goitik jota berauen prezioa	2,19
• Babes Ofizialeko Etxebizitza eraikitzea, aldi baterako kalifikazioa egikeran indarrean dagoen modulu ponderatu ezargarria 1,2tik 1,7ra arteko koefizienteekin, berauek barne direla, biderkatzearen emaitza izanik goitik jota berauen prezioa	2,19
• Besteak: Zergari lotutako beste edozein jarduera aurrekoak izan ezik.	5,00

 <p><b>Alegiako Udala</b></p> <p><b>Gipuzkoa</b></p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	<b>AKTA</b>
		DATA:	2025 - 10- 22
	IZENA: 20251022ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 11 - 26
		ORRIALDEA:	17 (e)tik <b>6</b>

*II.- ALDE ZAHARRA BIRGAITZEKO PLAN BEREZIAK ERAGINA DUEN EREMUA  
BIRGAITZE INTEGRATUTAKO AREA*

- Merkataritza, lanbide eta industriazko lokaletako obrak. 2,19
- Etxebizitza berriak eraikitzea eta honi atxikitakoak. 2,19
- Etxe eta etxebizitzetan birgaitze, eraberritze, eguneratze eta antzeko ekintzak. 2,19
- Etxebizitza sozialak eraikitzea, aldi baterako kalifikazioa egikeran indarrean dagoen modulu ponderatu ezargarria 1,1era arteko koefizientearekin, berau barne dela, biderkatzearen emaitza izanik goitik jota berauen prezioa 2,19
- Babes Ofizialeko Etxebizitza eraikitzea, aldi baterako kalifikazioa egikeran indarrean dagoen modulu ponderatu ezargarria 1,2tik 1,7ra arteko koefizienteekin, berauek barne direla, biderkatzearen emaitza izanik goitik jota berauen prezioa 2,19
- Besteak: Zergari lotutako beste edozein jarduera aurrekoak izan ezik. 2,19

**5.- Udal ordenantza, hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duena.**

I. ERANSKINA. KOEFIZIENTEAK

Balio-gehikuntzaren sorrera-aldien arabera aplikatzekoak diren koefizienteak izanen dira Lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen uztailaren 5eko 16/1989 Foru Arauaren 4.3 artikuluan (azaroaren 16ko 7/2021 Foru Dekretu Arauak emandako idazketan) aipatzen diren gehieneko koefizienteen taularen arabera eta eskualdatzearen une bakoitzean indarrean dauden ondoz ondoko eguneratzeen arabera aplikatu beharrekoak.

II. ERANSKINA. KARGA TASA BAKARRA

1. Zerga-oinarriari aplikatuko zaion karga-tasa %16,01 izango da.

**6.- Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzailea.**

1.- Zaborra etxez etxe bildu eta ezabatzeko zerbitzua. %14,21eko igoera.


Urteko tarifak	€
Etxebizitzak	208,25
Dendak	416,49
Janari-denda, jatetxe, taberna eta elkarteak.	701,69
150 m <sup>2</sup> baino gehiagoko jatetxe-tabernak	1.403,19
Industriak	905,25
Tasa bi zatitan kobratuko da.	

2.- Udal hilerrian zerbitzuak prestatu eta kontzesioak emateagatiko tasa. %3,6ko igoera

A) Kontzesioak:

1. Horma-hilobiak	€
Hamar (10) urterako	0,00

**ALEGIako UDAL BATZARRAREN OSOKO BILKURAK**

 <p><b>Alegiako Udala</b></p> <p><b>Gipuzkoa</b></p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	<b>AKTA</b>
		DATA:	2025 - 10- 22
	IZENA: 20251022ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 11 - 26
		ORRIALDEA:	17 (e)tik 7

<b>2. Horma-hilobi txikiak</b>	
Hamar (10) urterako. Lehenengo erabilpena zerraldoa erraustu ondoren.	0,00
Hamar (10) urterako. Bigarrenengo ekintzako erabilpena (horma hilobi, lurretik edo beste hilerri bateko lekualdatzea).	155,33
<b>3. Lurrean</b>	
Hamar (10) urterako	0,00

**B) Ehorzketa Zerbitzuak:**

Lurrean ehorztea	346,80
Horma-hilobian ehorztea	346,80
Panteoian ehorztea.	346,80
Hilotzen hondakinak hilobitik ateratzea. Lurretik.	346,80
Hilotzen hondakinak hilobitik ateratzea. Horma-hilobitik.	346,80
Hilotzen hondakinak hilobitik ateratzea. Panteoitik.	346,80
Hilotzen hondakinak hilerrian bertan mugitzea.	346,80
Zerraldoak edukitzeko lokalaren erabilpena eguneko.	50,04

**4.- Hirigintza lizentziak emateagatik tasa. %3,6ko igoera.**

**Obra txikietako espedienteak**

300,00 €tik 3000,00 € arteko aurrekontua	17,88
3.000,01 €tik gorako aurrekontua.	35,63
<b>Obra handietako espedienteak</b>	<b>356,17</b>

**Udalaren jarduera partikularren ekimenez.**

Egitasmo berezi, plan partzial, xehekapen azterketak eta urbanizazio proiektuak	4.150,45
Birzatiketa eta konpentsazio proiektuak	3.243,00
Finken banaketa	467,82
Landa-lurreko finken banaketa	171,40
Hiri finken banaketa laburra	171,40


**7.- Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantza.**

**A) Hesiak, aldamiok, zutabeak eta eustagak**

Hesiak, aldamiok: m. lineala edo zatiko eta eguneko	0,35
Zaborrak, lur hondakinak eta eraikuntza materialak: m <sup>2</sup> edo zatiko eta eguneko	0,97
Zutabeak eta eustagak: elementuko eta eguneko	0,35

**B) Ibilgailuak espaloietan zehar finken barrualdera sartzea.**

- Ibilgailuak espaloietan zehar sartzea:

 <p><b>Alegiako Udala</b></p> <p><b>Gipuzkoa</b></p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	<b>AKTA</b>
		DATA:	2025 - 10- 22
	IZENA: 20251022ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 11 - 26
		ORRIALDEA:	17 (e)tik <b>8</b>

Ibilgailu eta urteko banako garajeetan	21,08
Ibilgailu eta urteko garaje kolektiboetan.	9,37

C) Udal bide publikoen lurzoru, hegalkin eta lurpearen erabilpen pribatiboa edo aprobetxamentu berezia.

1. Kanpoaldean errotuluak jartzea m<sup>2</sup>-ko edo zatiko urtean:

Kalean	9,56
Ibilgailuetan	4,81

2. Zabor edo materialak biltzeko edukinontziak:

Aleko eta eguneko	3,40
-------------------	------

3. “Larraitz auzoa berriz urbanizatu eta irisgarritasuna hobetzeko Plan Berezian” oinarrituz emandako kontzesio administratiboren ondorioz, igogailu eta instalazio osagarriekin okupatutako herri bideak:

Urtean	132,18
--------	--------

E) Erabilpen publikoko lurretan postuak, barrakak, salmenta etxolak, auto-txokeak, ikuskizunak eta jolasketak jartzea, hala nola, kalez-kaleko industriak, ibiltariak eta zinema errodaiak.

Postu eta Barrakak:

10 m <sup>2</sup> .raino eguneko	10,90
10 m <sup>2</sup> .tik aurrera, m <sup>2</sup> .ko eta eguneko	1,10


Mahaiak eta eserlekuak jartzea, urtean:

0-2 mahai	68,60
3-6 mahai	137,18
7 mahai edo gehiago	205,78

Kutxazain automatikoak, eta elikagai eta edarien salmenta “vending” eta antzekoak	408,24
Salmenta kabinak, prentsa kioskoak eta antzekoak	579,18
Herri gunek makineriaren erakusketarako erabiltzea.	585,91

F) Ibilgailuen igarotzea mugatzeko sistema.

Txartel elektronikoa eskuratzea.	34,70
----------------------------------	-------

 <p><b>Alegiako Udala</b></p> <p><b>Gipuzkoa</b></p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	<b>AKTA</b>
		DATA:	2025 - 10- 22
	IZENA: 20251022ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 11 - 26
		ORRIALDEA:	17 (e)tik <b>9</b>

Berritzea, dagokionaren eskariz.	10,00
----------------------------------	-------

**8.- Zerbitzuak eskaini edo udal-jarduerak burutzeagatiko prezio publikoen ordenantza arautzailea.**

I. ERANSKINA

**KULTUR ETA KIROL ETXEA**

**Orokorra:** Alegian erroldatuak ez daudenak, kuota + %30. Lehentasuna herritarrek izango dute.

**1.- Bazkide txartelak (urte naturalekoa)**

Bi zatitan ordainduko da: lehena, urtarriletik ekainera bitartekoa eta funtzionamenduan aldaketarik ez bada planteatzen, bigarren zatia uztailetik abendura bitartekoa.

**Alegian erroldatuak**

- Familiarra (1)		171,00
	-Helduak	110,00
- Hobaridunak (2)		69,00
Alegian erroldatu gabeak (erroldatuen kuota + %30)		
- Familiarra (1)		222,00
	-Helduak	143,00
- Hobaridunak (2)		89,00


(1) Familiarra: Bikotea + 25 urte bitarteko seme-alabak.

(2) Hobaridunak:

- a) 18 urtez beheko gazteak.
- b) Ikasleak: 18 urtetik 25 urte arte, biak barne.
- c) Edozein adineko langabetu lan eskatzailea.
- d) 65 urte edo gehiago dituztenak.

**2.- Kirol jarduerak**

Aerobik, pilates eta antzekoak		
- Bazkideak (hileko)		28,00
- Bazkide ez direnak (hileko)		56,00
Gazte zunba (12 urtetik aurrera), 3. adinekoentzako gimnasia eta antzekoak.		16,50
Umeen ikastaroak.		11,00
Txintzarriak martxaneko gimnasia		5,40

 <p><b>Alegiako</b> Udala</p> <p><b>Gipuzkoa</b></p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	<b>AKTA</b>
		DATA:	2025 - 10- 22
	IZENA: 20251022ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 11 - 26
		ORRIALDEA:	17 (e)tik <b>10</b>


<b>4.- Sarrerak</b>	
Helduak (aldiko)	3,50
Gazteak (aldiko)	2,20
Gimnasioa (urte naturalaren erdia)	82,50
Gimnasioa (hileko)	22,50
<b>5.- Lokal eta instalazioen erabilera</b>	
Ekintza aretoa (ekitaldiko)	93,50
Zinea, lokala (ekitaldiko)	185,50
Frontoia erabiltzea ( <i>sarrera bazkidearekin</i> )	
2 ordu arte	66,30
2 ordutik gora	185,50
Gela bat erabiltzea (ekitaldiko)	23,00
Ikastaroetarako gela (hilabeteko)	93,50
Dutxak (bazkide ez direnak eta pertsonako).	3,20
Futbol zelaia (bi orduko), <i>sarrera bazkidearekin</i> .	
Zelai erdia	66,30
Zelai osoa	133,00
<b>6.- Udako ekintzak</b>	
Ludoteka, aldi erdia	59,00
Ludoteka, aldi osoa	107,00
Goiz txokoa, aldi erdia	25,00
Goiz txokoa, aldi osoa	40,00
<b>III. ERANSKINA</b>	
BESTE BATZUK	
<b><u>Materiala alokatzea:</u></b>	
Hesiak: bakoitza, eguneko	0,50
<b><u>Fotokopiak</u></b>	
orriko (DIN A-4 alde batetik)	0,30

**II.-** Parte hartze txandarik ez da eskatzen, eta zuzenean bozketara jartzen da gaia.

### **Bozketak eta erabakiak:**

Alkateak bozketara jartzen du erabaki proposamena, eta honako emaitzak jasotzen dira:

**ALEGIako UDAL BATZARRAREN OSOKO BILKURAK**

 <p><b>Alegiako</b> Udala</p> <p><b>Gipuzkoa</b></p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	<b>AKTA</b>
		DATA:	2025 - 10- 22
	IZENA: 20251022ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 11 - 26
		ORRIALDEA:	17 (e)tik <b>11</b>

- 1) Alde bozkatzan dute: EH-BILDU taldeko bi boto, eta AA taldeko bost boto. Beraz, zazpi boto aldeko, aho batez.
- 2) Aurka bozkatzan dute: Aurkako botorik ez dago.

Aldeko zazpi boto, aurkakorik gabe, beraz aho batez, nahiko eta beharrezko gehiengoa osatzen dutela,

**ERABAKIA:** Aurkeztutako 2026 ekitaldirako ordenantza fiskalak aldatzeko aurkeztutako proposamena era berean onartu, eta ondorioz, dagokion ordenantzetan aldaketak egin.

### **II.III.- TAXI JARDUNBIDE BEREZIKO ZONALDEA. 2026 EKITALDIRAKO TARIFAK. ERABAKI PROPOSAMENA.**

I.- Deialdiarekin batera, gaiari buruzko dokumentazio zabal eta ugaria igorri zaie aurretik Zinegotziei. Halaber, honela dion erabaki proposamena ere, igorria izan da:

#### **TAXI JARDUNBIDE BEREZIKO ZONALDEA. 2026 EKITALDIRAKO TARIFAK. ERABAKI PROPOSAMENA**

Eskualdeko garapen agentziak, Tolosaldea Garatzen SAk, kontu eman du iragan irailaren 25an, Alegia, Villabona, Zizurkil eta Tolosako alkateek bildu zirela, agentzia honetako gerentearekin, eskualdeko taxien elkarteak koordinatzeko.

Igorritako aktaren berri ematen da, non Agitaxek (Asociación Guipuzcoana del Taxi) 2026 urtean eskualde osoan aurkeztutako tarifa proposamena aztertu zuela; 2025koei %3,1eko igoera bat aplikatzea.


Batzordeak gaia aztertu ondoren, honako erabakia zuen:

1.- Taxiaren jardunbide bereziko zonaldean diharduten taxilariak eskualde osoan zerbitzua baldintza eta berme berdinekin eskain dezaten Alegia, Tolosa, Villabona eta Zizurkilgo udalei proposamen amankomun bat egitea:

- 2026 urterako 2025 urteko tarifei % 3,1eko igoera aplikatzea.
- Ondorioz 2026ko taxi tarifak honela finkatzen dira:

**2026. URTERAKO TARIFA BATERATUA**

**ALEGIako UDAL BATZARRAREN OSOKO BILKURAK**

 <p><b>Alegiako Udala</b></p> <p>Gipuzkoa</p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	<b>AKTA</b>
		DATA:	2025 - 10- 22
	IZENA: 20251022ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 11 - 26
		ORRIALDEA:	17 (e)tik <b>12</b>

PROPOSAMENA	ABIASARI	IBILITAKO KILOMETROAK	ITXARONDENBORA ORDUKO
TARIFA 1 (*)	5,2032 €	1,2774 €	23,1615 €
TARIFA 2 (**)	5,8722 €	1,9431 €	34,1179 €

\* Lanegunetan 07:00tik 22:00 arte.

\*\* Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00tik 7:00 arte. Bai igande eta araudi autonomika eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 7:00tik 22:00 arte bai larunbatetan, eta abenduaren 24 eta abenduaren 31 egunetan.

2.- Proposamen hau lau Udaletako batzarretan aurkeztu eta bideratzea.

Halaber, gehitzen da, Alegiako Osoko Bilkurak 2024/09/25an onartutako tarifari aplikatuko zaiola %3,1eko igoera.

#### ERABAKI PROPOSAMENA

**Lehen:** Aurkeztutako proposamena jarraituz eguneratu, 2025ko tarifei %3,1eko igoera gehituta, proposatua izan den era berean aldaketarik gabe.

**Bigarrena:** Erabakiaren berri eman Tolosaldea Garatzen Sari Eskualdeko Agentziari dagokion bideratzea egin ahal izateko.


II.- Parte hartze txandarik ez da eskatzen, eta zuzenean bozketara jartzen da gaia.

#### Bozketak eta erabakiak:

Alkateak bozketara jartzen du erabaki proposamena, eta honako emaitzak jasotzen dira:

- 1) Alde bozkatzen dute: EH-BILDU taldeko bi boto, eta AA taldeko bost boto. Beraz, zazpi boto aldeko, aho batez.
- 2) Aurka bozkatzen dute: Aurkako botorik ez dago.

Aldeko zazpi boto, aurkakorik gabe, beraz aho batez, nahiko eta beharrezko gehiengo osatzen dutela,

 <p><b>Alegiako</b> Udala</p> <p>Gipuzkoa</p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	<b>AKTA</b>
		DATA:	2025 - 10- 22
	IZENA: 20251022ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 11 - 26
		ORRIALDEA:	17 (e)tik <b>13</b>

**ERABAKIA:** Aurkeztutako proposamena jarraituz taxi jardunbide bereziko zonaldea 2026 ekitaldirako tarifak eguneratu, 2025ko tarifei %3,1eko goera gehituta, proposatua izan den era berean aldaketarik gabe.


## **II.IV.- ALEGIAN EUSKARA INDARBERRITZEKO ETA EUSKALDUNOK AHALDUNTZEKO MARKO ESTRATEGIKOA 2024-2034**

I.- Deialdiarekin batera, gaiari buruzko dokumentazio zabal eta ugaria igorri zaie aurretik Zinegotziei. Halaber, honela dion erabaki proposamena ere, igorria izan da:

### **ALEGIAN EUSKARA INDARBERRITZEKO ETA EUSKALDUNOK AHALDUNTZEKO MARKO ESTRATEGIKOA 2024-2034**

1979ko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarenak, 6. artikuluan ezartzen du euskara dela Euskal Autonomia Erkidegoko berezko hizkuntza ofiziala, eta herritar guztiek euskara eta gaztelania ezagutzeko eta erabiltzeko duten eskubidea aldarrikatzen du. Autonomia Estatutuaren artikulua berean, gainera, erakunde komunei aitortzen zaie bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatzeko erantzukizuna, haien ofizialtasuna arautzekoa, bai eta beren ezagutza ziurtatzeko behar diren neurri eta baliabideak bideratzeko eta arautzeko gaitasuna ere.

Euskal Autonomia Erkidegoan euskararen erabileraren normalizaziorako beste oinarritzko zutabe juridikoetako bat 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea da, Euskararen Erabilera Normalizatzeakoa. Lege horrek hizkuntza-politikako ekimenak garatzeko bidea ireki zuen, gizartearen eremu estrategikoetan euskararen ezagutza eta erabilera berreskuratzeko eta euskararen erabileraren sustapena zabaltze aldera behar duen babes instituzionala eskaintzeko. Legearen 5.2 artikulua oinarritzko hizkuntza-eskubideak aitortzen dizkie Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrei gizarte-bizitzako hainbat gunetan. Legearen 6. artikulua, hain zuzen, herritar guztiei aitortzen die Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean administrazio publikoarekiko harremanetan euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea, eta beren aukerako hizkuntza ofizialean hartuak izatekoa. Horretarako, aurreikusten du botere publikoek neurri egokiak hartu behar dituztela, eta beharrezko bitartekoak jarri, aipatutako hizkuntza-eskubideak arian-arian betetzen direla bermatzeko. Gainera, Legearen 14. artikulua ezartzen duenez, “herri-agintek Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan herri-administrazioari atxikitako langileria gero eta euskaldunagozteko neurriak hartuko dituzte”. Era

 <p><b>Alegiako Udala</b> Gipuzkoa</p>		DOKUMENTUA:	<b>AKTA</b>
	Lehendakariaren errubrika	DATA:	2025 - 10- 22
	IZENA: 20251022ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 11 - 26
		ORRIALDEA:	17 (e)tik <b>14</b>

berean, Legearen 23., 25., 26. eta 27. artikuluek ahalmena ematen diete botere publikoei euskara sustatzeko gaietan jarduteko.

2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 7.1. artikuluan ezartzen du Udalak eskumena daukala erakundearen barruan euskararen normalizazioa planifikatzeko eta horretarako planak egiteko:

*«Udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, izendatuta dauzkaten arloetako zerbitzu eta jardueretan euskararen erabilera sustatzeko eta euskararen normalizazioa planifikatzeko eskumena. Eskumen hori egikaritu ahal izateko, udal bakoitzak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu eta euskararen erabilera normalizatzeko beharrezkoak diren planak onetsi eta garatuko ditu, kontuan izanik instituzio komunitatik eta indarrean dagoen legeriatik euskararen erabilerari dagokionez eratorritako planifikazio eta erregulazio-irizpideak».*

11/2022 Legeak, abenduaren 1ekoak, Euskal Enplegu Publikoarenak, 187.2. artikuluan xedatzen du herri-erakundeek euskararen erabilera sustatzea:


*«Euskal administrazio publikoek saiatu behar dute beren zerbitzuko langileek hizkuntza- gaikuntza egokia izan dezaten eta euskara erabil dezaten euren jarduera-eremuan, eta, horretarako, beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte».*

Horrekin lotuta, 187.3. artikuluan zehazten da erakundeek hizkuntza-plangintzako tresna bat edukitzea:

*«Euskal administrazio publikoek, haien mendeko instituzio eta organismoek, Eusko Jaurlaritzak berariaz ezarritako irizpideei jarraituz, hizkuntza-plangintzarako tresnak onartuko dituzte, bakoitzak berea, eta bertan finkatuko dituzte plangintzaldi bakoitzerako lortu nahi diren helburuak, hartu behar diren neurriak eta jarri behar diren bideak».*

19/2024 Dekretuak, otsailaren 22koak, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoak 5. artikuluan xedatzen du sektore publikoko entitateek plan estrategiko bat eduki behar dutela euskararen erabilera normalizatzeko.

2025ko apirilaren 30an Alegiako Udaleko Udal Batzarrak, Alegiako Udalaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa 2023-2027 onartu zuen.

 <p><b>Alegiako Udala</b></p> <p><b>Gipuzkoa</b></p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	<b>AKTA</b>
		DATA:	2025 - 10- 22
	IZENA: 20251022ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 11 - 26
		ORRIALDEA:	17 (e)tik <b>15</b>

Alegiako Udalak, UEMAREN aholkularitzarekin eta herriko eragileen parte-hartzearekin, landu eta aurkeztu du “Alegian euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduntzeko AROA marko estrategikoa 2024–2034” izeneko dokumentua. Dokumentuak honako hauek jasotzen ditu, besteak beste: misioa, nahi estrategikoa eta ikuspegia; ardatz estrategikoak; erronkak; lan-ildoak; ekimenak eta ekintzak; gobernantza-eredua eta jarraipen/ebaluazio-mekanismoak.

Alegia udalerrri euskalduna da, eta euskararen transmisioa, ezagutza eta erabilera handitzeko helburuarekin, komenigarria da AROA 2024–2034 marko estrategikoa onartzea, udal-erakundearen, hezkuntza-komunitatearen, merkataritza eta ostalaritzaren, elkarten eta gainerako eragileen arteko elkarlan egituratu baten bidez. Planak, besteak beste, honako ildoak lehenesten ditu: etorri berrien harrera eta integrazioa; haur eta nerabeen hizkuntza-ohiturak; euskarazko ikus-entzunezkoen eta erreferenteen sustapena; eta euskararekiko sentsibilizazioa. Horiez gain, gobernantza-lana indartzen du (urtean hiru jarraipen-bilera eta adierazleen bidezko ebaluazioa), eta komunikazio/hedapen-ildo espezifikoak ezartzen ditu.

Alegian euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduntzeko marko estrategikoa 2024-2034 onartzeko eskumena alkateak du oro har, kontuan hartuta zer dioen 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21.1. s) artikuluan. Ordea, planaren izaera eta hedadura ikusirik, proposamena da Udalbatzak onartzea, 7/1985 Legearen 22.2 d) artikulua oinarri hartuta.


Hori guztia ikusita, ezinbestekoa da Alegian euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduntzeko marko estrategikoa 2024-2034 onartzea, indarrean dauden xedapenen arabera bete behar dituen hizkuntza-helburuak lortzeko.

Alkateak hitzez hitz hurrengo esan zuen: *“Izaro Urreta Elizegi Alegitarrari eskerrak eman nahi diot egin Aroa proiektua idazten egin duen lan handiagatik. “*

Aurreko guztia aintzat harturik, hona hemen nire

### **ERABAKI PROPOSAMENA**

**LEHENA.**-Onartzea Alegian euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduntzeko marko estrategikoa 2024-2034.

 <p><b>Alegiako Udala</b> Gipuzkoa</p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	<b>AKTA</b>
		DATA:	2025 - 10- 22
	IZENA: 20251022ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 11 - 26
		ORRIALDEA:	17 (e)tik <b>16</b>

**BIGARRENA.-** Alegian euskara indarberitzeko eta euskaldunok ahalduntzeko marko estrategikoa 2024-2034 Alegiako Udalaren webgunean argitaratzea.

**II.-** Parte hartze txandarik ez da eskatzen, eta zuzenean bozketara jartzen da gaia.

### **Bozketara eta erabakiak:**

Alkateak bozketara jartzen du erabaki proposamena, eta honako emaitzak jasotzen dira:

- 1) Alde bozkatzen dute: EH-BILDU taldeko bi boto, eta AA taldeko bost boto. Beraz, zazpi boto aldeko, aho batez.
- 2) Aurka bozkatzen dute: Aurkako botorik ez dago.

Aldeko zazpi boto, aurkakorik gabe, beraz aho batez, nahiko eta beharrezko gehiengo osatzen dutela,

**ERABAKIA:** Onartzea Alegian euskara indarberitzeko eta euskaldunok ahalduntzeko marko estrategikoa 2024-2034.

## **III.- MOZIO, ERREGU ETA GALDERAK.**

### **III.I.- MOZIOAK:**

Ez daude.

### **II.- ERREGUAK:**

Ez da egiten.


### **III.- GALDERAK:**

Ez da egiten.

Eta besterik gabe, arratsaldeko zazpiak eta hamar minutu direla, Alkateak amaitutzat ematen du bilera.

**Ontzat Eman**

**ALEGIako UDAL BATZARRAREN OSOKO BILKURAK**

 <p><b>Alegiako</b> Udala</p> <p><b>Gipuzkoa</b></p>	Lehendakariaren errubrika	DOKUMENTUA:	<b>AKTA</b>
		DATA:	2025 - 10- 22
	IZENA: 20251022ba.akt	ONARTZE DATA:	2025 – 11 - 26
		ORRIALDEA:	17 (e)tik <b>17</b>

**Alkate-Lehendakariak**

**Idazkariak**

